Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

6243

EBAZPENA, 2009ko urriaren 30ekoa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, «Generoa Garapenean: iparra-hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako» (PRO-2006K3/0001) proiektuari uko egiteko onarpena ematen duena. Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak aurkeztu zuen proiektu hori, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoren konturako 2006ko deialdiaren barruan.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren konturako proiektuak 2006. ekitaldian diruz laguntzeko deia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen otsailaren 28ko 50/2006 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri berehala emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du. Proposatutako aldaketak onartzea Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua erakundeari 211.828 euroko diru-laguntza eman zitzaion, honako proiektu hau gauzatzeko: «Generoa Garapenean: iparra-hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako».

Erakunde horrek, 2009ko urriaren 14an, uko egiteko eskaera egin zion, idazki baten bidez, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diru-laguntzaren erakunde onuradunak eskatutako aldaketen aldeko irizpena eman du, eta horren ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Hegoa, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua erakundeak eskatutako ukapena zeren eta diru-laguntza eman baitzitzaion proiektu hau gauzatzeko: «Generoa Garapenean: iparra-hegoa eztabaida-gaiak emakumeen agenda politikorako». Proiektu hori Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoren konturako 2006ko deialdiaren barruan aurkeztu zen. Horrek, 7.829,98 euro itzuli beharra dakar.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

6243

RESOLUCIÓN de 30 de octubre de 2009, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la renuncia para el proyecto PRO-2006K3/0001: «Género en el Desarrollo: temas de debate norte sur para la agenda política de las mujeres» presentado por la entidad Asociación Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2006.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 50/2006, de 28 de febrero, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2006, establece que la entidad solicitante deberá informar inmediatamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Asociación Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional una subvención de 211.828 euros para la realización del proyecto Género en el Desarrollo: temas de debate norte sur para la agenda política de las mujeres.

La citada entidad, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 14 de octubre de 2009, formuló una solicitud de renuncia.

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Autorizar la renuncia solicitada por Asociación Hegoa, Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional en el proyecto Género en el desarrollo: temas de debate norte sur para la agenda política de las mujeres, presentado dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2006. Esto supone la devolución de 7.829,98 euros.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 30a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

Segundo.– Contra la presente resolución, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de octubre de 2009.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.